



Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2018ko abuztuaren 6tik 10erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ALEMANIAKO INDUSTRIA EKOIZPENA

GERMANY INDUSTRIAL PRODUCTION MOM



SOURCE: TRADINGECONOMICS.COM | FEDERAL STATISTICAL OFFICE

Datuaren analisia


emaniako industria-ekoizpenak sorpresa negatiboa eman zuen ekainean, % 0,9 atzera egin idoren. Espero zena baino datu okerragoa da, merkatuak beherakada bat espero zuelako, aiatzean % 2,4 igo ondoren, mantentzen oso zaila zen mailaraino. Erantsitako grafikoan ikus itekeen moduan, datu oso aldakorra da, baina 2018an negatiboan eman dituen hilabete piloa i arreta deitzen duena. Aurten, bi hilabetez besterik ez da egon positiboan. Horrek aditzera naten du Europako ekonomia nagusiko fabrikek erritmoa motel dezaketela datozen hiletan, eta orixe izan daitekeela egungo tentsio komertzialen lehen ondorioa.

Adierazlearen azalpena

idustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den npresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. onomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen nalisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Estatu Batuetako uztaileko KPIaren azken datuetan emaitza mistoak ikus daitezke. Batetik, aurreko arekin alderatuta, inflazioa hamarren bat igotzea da, % 0,2raino, merkatuak dagoeneko deskontatuaren igoera batean. Baina aurrerapauso horrek ez dauka islarik urte arteko alderaketan, % 2,9an konkurtu baita. Bitartean, azpiko irakurketak, erosketa-saskiko osagaien prezio hegazkorrenak erakusten dituenak, hala nola erregaiak eta elikagai freskoak, ez du aldaketarik izan. Hala ere, urte arteko bilakaeran % 2,3tik % 2,4rako igoera bat eman da, adituek aurreikusten ez zutena. Horren ondorioz Erreserba Federalaren helburuaren gainetik daude, baina momentuz ez du ematen aurrerapauso horrek asaldatu dituenik.

Adierazlearen azalpena

Plaza hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin zehaztu dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat gertatu den edo txikitzen den, ehunekoan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa erakusten du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

IAPONIA: BIGARREN HIRUHILEKO BPGd-a



Datuaren analisia

garren hiruhilekoko BPGd-a espero ziren mailen gainera hazi da. Aurreko $-\% 0,4$ tik $\% 0,4$ ra igo da, $\% 0,2$ ko igoera espero zenean. Urteko lehen hiruhilekoan atzera egin ondoren, Japoniako ekonomia onomikak aurrera egin du orain, eta atzeraldiaren arriskua albo batera utzi du, batez ere etxeko enpresen eta enpresen inbertsioari esker. Esportazioek, urteko lehen hiruhilekora arte ekonomia nazionalaren hazkuntzean gehien lagundu zuen osagaietako bat, erritmo onari eutsi zioten, eta urteko lehen hiruhileko $\% 0,8$ eta hiruhileko arteko $\% 0,2$ egin zuten aurrera.

Adierazlearen azalpena

Produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkuntza ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen produktuak zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dituzte, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6,3
08/14	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
08/14	Alemania	Urte arteko KPIa	% 2,0
08/14	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 2,3
08/14	Espainia	Urte arteko KPIa	% 2,2
08/14	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
08/14	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 2,4
08/14	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	72.1
08/14	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-21.3
08/14	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
08/15	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2,5
08/15	Erresuma Batua	YoY etxebizitza-prezioen indizea	% 2,6
08/15	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
08/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	20.0
08/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,3
08/15	Estatu Batuak	Etxebizitzen merkatuaren NAHB indizea	67
08/16	Japonia	Balantza komertziala	-¥41.2b
08/16	Alemania	Handizkako urte arteko prezioen indizea	--
08/16	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
08/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 7,4
08/16	Estatu Batuak	Eraikitze baimenak	1310k
08/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 2,1
08/17	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0,4
08/17	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.0

JRTSA:

aste negatiboa nazioarteko merkatu nagusientzat. Mugasari rrien iragarpenak eragindako tentsio komertzialaren behera ematen du beste behin aurreikuspenak gainditu uzten enpresen emaitza onen argitalpenarekin orekatu in dela.

Estatu Batuek Iran, Errusia eta Turkiari isun berriak jartzeak ez du ematen merkatua asaldatu duenik. Baina asteak errera egin ahala, Turkiako egoera larrituz joan da. Turkiako lirak hondoa jo du, eta herrialdea NDFri finantza-juntza eskatzeko zorian utzi du. Gainera, egoera horrek errera egin zuen Berat Albayrak Finantza ministroaren skurtsoaren ondoren. Ustez eredu ekonomiko berri bat rkeztu behar zuen, baina ezerezean geratu da dena.

Horren ondorioz, lira eta Turkiako aktiboak are gehiago ndoratu ziren, eta horrek gainerako finantza-merkatuak tsatu zituen, batez ere europarrak, ordurako nahiko zkatuta zeudenak haien finantza-sektoreak Turkian ukan presentziarekin, EBZk iragarri bezala.

Artara, European, % 1,50 inguruko jaitsierekin itxi zuten tea burtsek. Esate baterako Eurostoxx50 indizeak % 1,61 in zuen atzera, eta Ibex35-ak % 1,41, batez ere BBVAren aginez, Turkian parte-hartze handiena duena Europako nkua. Wall Streeten ere nabaritu zen krisi turkiarra. Dow nes (-% 0,59) zein S&P 500 (-% 0,25) indizeek behera in zuten. Herrialde gorakorretan jaitsierak handiak izan a, tentsio geopolitikoaren ondorioz.

ERRENTA FINKOIA:

Tentsio geopolitikoa errenta finkoko merkatuan ere bararitu zen. Horren erakusgarri dira bonu alemaniar eta merikarren erosketa handiak, biak ala biak aterpe-aktibo gusi jo direnak. Horrenbestez, hamar urterako bund-en errentagarritasunak 9 op egin zuen behera, % 32raino, eta amerikarrarenak 8 op, % 2,87raino.

Bestalde, Turkiako egoerak eragin negatiboa izan zuen peraraino eraman zuen, aste honetan 9 op gora egin ondoren.

BISAK/LEHENGAIK:

Legegongortasun politikoaren testuinguru horretan, dolarra erpe-aktibo bihurtu da, baina are gehiago yen-a, aste netan % 2ko balioa irabazi duena euroaren aldean. Yena lira turkiarraren hondoratzea izan da asteko gairik barmenena, bere kotizazioak % 20tik gora egin itzuen behera. Lehengaien merkatuan, berriz, trolioaren prezioak behera egin zuen berriro, Estatu ituek Irani jarritako isunen ondorioz ekoizpenak behera iteko beldurra nagusi bazen ere.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa	Ald. % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Local)	1.635,23	-0,40		3,09
IBEX 35	9.602,10	-1,41		-4,40
DJ EURO STOXX 50	3.426,28	-1,61		-2,22
DJ STOXX 50	3.100,12	-1,15		-2,45
FTSE	7.667,01	0,10		-0,27
S&P 500	2.833,28	-0,25		5,97
Dow Jones	25.313,14	-0,59		2,40
NASDAQ	7.839,11	0,35		13,55
NIKKEI 225	22.298,08	-1,01		-2,05
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.601,06	0,00		-3,74
MEXBOL	48.383,59	-1,86		-1,97
BOVESPA	76.514,35	-6,04		0,15
SHANGHAI	2.927,43	2,00		-15,48

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,64	-0,05	-0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,27	0,02	0,08
AEB 2 URTE	2,60	-0,04	0,72
ALEMANIA 10 URTE	0,32	-0,09	-0,11
ESPAINIA 10 URTE	1,41	-0,01	-0,16
AEB 10 URTE	2,87	-0,08	0,47
ALEMANIA 30 URTE	0,98	-0,08	-0,28
ESPAINIA 30 URTE	2,52	0,00	-0,33
AEB 30 URTE	3,03	-0,06	0,29
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	67,26	3,31	22,34
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	301,95	8,31	69,52

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Dolarra / Euroa	1,14	-1,66	-5,16
Yena / Euroa	126,24	-2,12	-6,74
Libera / Euroa	0,89	0,43	0,61

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	72,06	-1,04	7,84
Urrea	1.211,70	-0,16	-7,01



Kutxabank Gestión SGIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.